




BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
B I Z K A I A

**Prentsa-oharra**

## **Enkarterrietako Museoak bisitaldi gidatuak izango ditu ISMAEL FIDALGO margolariari buruzko atzera begirako erakusketan sakontzeko**

- Doanekoak izango dira eta bariku honetan, urriak 12, hasiko dira. Bisitaldia egiteko aurretiaz deitu behar da.

**Abellanedan, 2012ko urriaren 10ean.** Ismael Fidalgo Enkarterriko margolari espresionista izan zan, eta XX. mendearen bigarren erdialdeko euskal margolaririk bikainenetarikoa. “Ismael Fidalgo (Sopuerta 1928 – Trapagaran 2010. Margolari espresionista baten abentura” deritxan erakusketea martxan dala-ta, Enkarterrietako Museoak zenbait bisitaldi gidatu antolatu ditu barikuan hasi eta Gabonak arte, “meatzen margolari” izan zan horrek itxi deuskun arte ondare handian sakontzeko asmoaz.



Gidatutako bisitaldiak doanekoak izango dira. Dana dala, aurretiaz erreserbatu behar dira 94 650 44 88 edo 94 610 48 15 telefonoetara deituta edo [enkarterrimuseoa@bizkaia.net](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.net) helbidera idatzita. Bisitaldia talde mugatuetan egingo da, txanda bitan (11:30etan edo 13:00ean), urriaren 12, 14, 20 eta 21ean; azaroaren 1, 4, 10, 11 eta 25ean; eta abenduaren 1, 2, 16, 22 eta 23an.

Ismael Fidalgo margolariari buruzko atzera begirako erakusketea 2013ko urtarrilera arte egongo da edegita. 100 koadru baino gehiago dira, baita paper ganean egin zituan beste hogeita hamar lan inguru be (marrazkiak, gutun apainduak, dokumentazioa...). Horrezaz ganera, produkzio propioko dokumentala be emongo da, Enkaterrigaz, Ezkerraldeagaz eta Meatzaldeagaz oso loturik egon zan artista horren bizitzari eta lanari buruzkoa. Era berean, erakusgai izango dira Fidalgoren hiru busto irudi eta beste artista garrantzitsu batzuk egin eutsiezan erretratuak, Ibarrola, Apezetxea, Etxarte, Marce Bañales edo Chumy Chúmez karikaturgile ezaguna horreen artean dirala.

Museoko teknikariek emongo deutsiezan azalpenen bitartez, bisitariak ikusi ahal izango dabe Nafarroan artearen eta margogintzaren iraultzaile handitzat jotzen dabela Fidalgo, edo 1957. urtean Trapagaranera joan zala eta hantxe ekin eutsala inguruan eukana margozteari, askorentzat “meategien margolari” bihurtu arte.

Abellanedako Museora (Sopuertan dago) hurreratu daitenak ikusiko dau 70en hamarkadan “La Balco” (Babcock Wilcox) izeneko Margolarien Taldearen sortzaileetarikoa bat izan zala, eta urte askoko lanaren ostean, adituek XX. mendeko euskal margolaririk



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

esanguratsuenetarikotzat joten dabe espresionismoaren barruan. Fidalgoren lanak eragin handia izan eban beste euskal artista askorengan.




BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Nota de prensa

## Visitas guiadas en el Museo de Encartaciones para profundizar en la retrospectiva de Ismael Fidalgo

- Serán gratuitas, con cita previa, y comenzarán este viernes, 12 de octubre.

**Abellaneda, 10 de octubre de 2012.** Ismael Fidalgo fue el pintor expresionista de las Encartaciones y uno de los artistas vascos más relevantes de la segunda mitad del siglo XX. Con motivo de la exposición retrospectiva “ISMAEL FIDALGO. La aventura de un pintor expresionista (Sopuerta 1928-Trapagaran 2010)” que sobre su vida y obra llena la sala multiformato del Museo de las Encartaciones, se han organizado una serie de visitas guiadas hasta fin de año, con el propósito de profundizar en el importante legado artístico del llamado “pintor de las minas”.



Las visitas guiadas son gratuitas. Para realizarlas, es necesario hacer previamente una reserva en los teléfonos 94 650 44 88 o 94 610 48 15, o en el correo electrónico [enkarterrimuseoa@bizkaia.net](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.net). Las plazas son limitadas y el visitante podrá elegir entre dos horarios (a las 11.30 horas o a las 13.00 horas), durante los días 12, 14, 20 o 21 de octubre; 1, 4, 10, 11 o 25 de noviembre; y 1, 2, 16, 22 o 23 de diciembre.

La exposición retrospectiva sobre Ismael Fidalgo, que permanecerá abierta hasta enero de 2013, reúne más de 100 cuadros suyos y una treintena de obras en papel (dibujos, cartas decoradas, documentación...), además de dos documentales de producción propia que recorren la vida y obra de un artista muy unido a las Encartaciones, Margen Izquierda y Zona Minera. Junto a este compendio de arte, se exponen también tres bustos con su efigie y diversos retratos hechos por pintores relevantes como Ibarrola, Apezetxea, Etxarte, Marce Bañales o el conocido caricaturista Chumy Chúmez.

Gracias a las explicaciones que ofrecerán los técnicos y técnicas del museo, los visitantes descubrirán que Fidalgo fue considerado en Navarra como un revolucionario del arte y la pintura. O que tras asentarse en Trapagaran en la década de los años 50 y continuara su labor de pintar su entorno vital, se convirtió para muchos en el “pintor de las minas”.

Además, quien se acerque al museo encartado de Abellaneda (Sopuerta), averiguará que, ya en los años 70, Fidalgo fue uno de los fundadores del grupo de pintores de “La Balco” (Babcock Wilcox) y que, tras décadas de intenso trabajo, hoy es considerado por los expertos como uno de los artistas vascos más relevantes del siglo XX dentro del expresionismo. Su obra llegó a influenciar a un considerable número de artistas vascos.